

Joakin Lizarraga ta Nafarroa'ko Jaurilaritza

Argitaratu berria dute liburu sendoa ta mardula, Lizarraga'ren lana; liburu altzairua deitzen oi dena. Eskerrik Nafarroa'ko Jaurilaritzak dirua aldetik lagundu dula. Liburu egokia da; azalak lodiyak, izkiak ederrak, orriak galantak. Lan berexia Joakin Lizarraga euskal nafar idazleari gogoz eskeñia. Gaia, berriz, «JESUKRISTO, Maria eta Santuen Bizitzak»

Idazle onen eskuz egindako idazkiak, Nafarroa'ko Artxibo Nagusian zeuden eta arrazoi andi batengatik argitarazi dituzte; euskaraz idatzirik daude ta Iruña lurraldeko euskara zarrean. Aberastasun andi baten aitorle berexia da. Egillea, Joakin Lizarraga ez da nolanaiko gizona. Elkano errian, Iruña ondoan jaio, bizi ta erretore bezala il zen (1748-1835). Langille amorratua zen, eta borts milla orrialde, Iruña'ko euskaraz idatzirik utzi zituen, geientsuenak elizarako itzaldiak. Garai artako Nafarroa'ko idazle bakarra dugu. Aita Mendiburu'ren urteetakoa. Geroztik Iruña lurraldeko euskara galdu zaigu, euskalkietan zabalena. Ez da deus gelditu. Lizarraga'ren lana euskara berexi onen aitorle bezala agertzen zaigu. Iraun zezan, naiko lanak artu zituen. Elkano erria, euskalduna zeukan oraindik. Euskarari eusten aunitz alegindu zen. Lizarraga'ri eskerrik oso ondo dakigu nolako zen orko euskara. Orregatik ba, Kultur eta Hezkuntza Departamentuak, eta Hizkuntza Politikarako zuzendaritza nagusiak lagundu diote argia ikusten liburu oneri.

Liburu onen arduradunak, Lizarraga'ren espezialista onenak ditugu, bi yakintsu: JUAN APEZTEA TA PATXI ONDARRA. Biyek dituzte lan andiak argitaratuak Lizarraga'ren idazkiei buruz.

Apezetxea, Goizueta'tarra da ta apaizgintzan lana egiten du Goi-gotzaitegian. Teologiako tesisa Joakin Lizarraga'ri buruz egiña dauka 1974'garren urtean,

JOAKIN LIZARRAGA
JESUKRISTO,
MARIA ETA SANTUEN
BIZITZAK

Edizio kritikoa
J. Apezetxeak
eta F. Ondarra prestatua

Nafarroa'ko Gobernua
Eusko Legebiltzaria
Berri 75. urtemugan



Nafarroa'ko Gobernua
Kultur eta Hezkuntza Departamentua



Nafarroa'ko Gobernua
Legebiltzaria Departamentua

Iruña, 1994

geroztik argitaratua dago erderaz liburu mardula. 1980'garren urtean Euskaltzaindiko laguntzalle izendatu zuten. Denetara iru liburu ditu ta ogeiren bat idazlan, Lizarraga'ri buruz argitaratuak.

Aita Ondarra kaputxinoa dugu, Bakaiko'tarra. Lizarraga'ri buruz bi liburu ditu idatzirik. Bertze paper zar aunitz Nafar euskaraz egiñak argitaratzen dabil. Iruiz'tar Aita Polikarpok zeuzkan eta bizirik zela, Aita Ondarra'ri eman zizkion. Esku onetan dauka. Lan eder guztiengatik, Euskaltzaindiak maikide osoa izendatu zuten, 1980'garren urtean, Aita Polikarpo'ren albia betetze-ko.

Aipatu bearra daukagu Aita Gregorio Andueza'k egindako lana; makinaz garbiri jarri, eskuz, Lizarraga'k idatzitako pape-
rak. Iru gizon langille aben lanak, lau urte iraun dute amaitzeko.

Lizarraga'ren liburu berri onen Nafarroa'k irabazi du. Lizarraga'ren euskara, orain esku aunitzetan dago. Elkano'ko apezaren lanak eta euskara, Nafarroa'ko altxorra andiak ditugu; «andienetakoak», bitxi berexiak.

Latxaga

Leitza'ko Demetrio'ri zorretan utzi nion karta

Badire aste batzuk. Eguneroko ontan agindu nion Demetrio'ri, esango niola nolako izen zen, Euskalki guztiak errez ikasteko Euskerazaintza Akademiaren izenean Gazteiz'ko Jaurilaritzako Ramon Labaien'i aurkeztu nion programa edo egitaraua. Kultur-arazoetarako ministroa zen bera, eta orduantxe zebillen, euskal-telebista lanean jartzeko, saioak egiten.

Aurretik ordea, gu beregana zergatik joan giñen esan bearko di-
zuet. Euskerak batasunerako artu duen bide okerrak kezkatuta, euskeraren egiazko batasunerako zer egin ditekenean adieraztera joan giñen jaun arengana. Izkuntz guztien batasuna ez bait da berdiña.

Eman dezadan, ordea, atzeruntz, pauso bat geiago. Arritzekoa bait da Euskara bateratzeko joan dan mendeaz gero gure «jakintsuek» erabili duten leia. Latiñez, frantzez, gaztelerez eziak izan ondorean euskalsena aski galdua zuten gure jakintsuek.

Erriak, ez du sekulan orrelako bearkizunik sentitu. Ez da, euskerak batasunik bear duanik ere jabetu. Arrazoi aundiz Euskerak ez bait du batasunaren bearrak. ¡Beti izen du ba bere batasuna! Berez berea duen batasuna. Ez da ba berdiña izkuntza guztien batasuna.

Bi izkuntz aundi izen dire munduan: Latiña, erromatarren izkuntza; eta elenera, Grezi zarrekoa jakintza aundi aien izkuntza.

Latiña, «monoforme» edo «erabakarduna» da. Era ortakoak dire Gaztelera ta Frantzeraz, Latiña'ren bi alaba nagusiak ere. Ta... gure «jakintsu» aiek, latinkeriz, gaztelarakeriz eta frantzeskeriz, amaren bularretatik edoskitako euskal-sena osoro estalirik zeukatelako, iru erdera aien itxuraz zoraturik, erdera aien batasunaz moldatu nai izan zuten zearo ezberdiñak den Euskera. Batasun ori, ordea, ez zen Eus-



keraren batasuna. Euskeraren batasuna, «pluriforme» edo «eraskoduna» bait da. Grezi'ko ura bezalakoa. Arek, 18 dialekto nagusi zituen. 18 oietatik, literaturan erabili zituanak, 4: Joniera, Eoliera, Dorikera eta Atikera. Xumeagoa da gure Euskara: 4 ditu literaturan erabili dituanak: Zuberoera, Laburdiera, Gipuzkera, eta Bizkaiera. Baña, literatura alde batera utziz, 3 besterik ez dire Euskeraren erak: Sortaldekoa (Zuberoa, Erronkari), Erdikoa, (Nafarroa, Laburdi, Gipuzkoa), eta Sarkaldekoa (Bizkai).

Ta... ori da Euskeraren batasuna: Literaturako 4 euskalki oiek euskaldun danek al den ongien eza-gutzea! Zalla? Ez, batez ere gaur egun:

Naikoa bait da irratiz eta telebis-taz bi Euskalki oiek berdin erabil-tzea: gauza bat, albiste bat adibi-dez, gipuzkeraz eta urringoa bizkaieraz esatea; eta telebistaz zine-mintza bat bizkaieraz eta bes-tea gipuz-keraz ematea. Naikoa, urte bete beño len euskaldun guz-

tiak bi euskalki oiek ederki ulertu aal izeteko. Umeek ez lukete, orta-rako, urte baten bearrak izengo. «Heidi» izeneko zine-mintza ematen zuen orduan telebistak umeen-tzako. Ba, zine-mintza artan Hei-di'k bizkaieraz itzegin ba'lu eta Heidi'ren mutiko lagunak gipuzke-raz, sei illabete beño askoz leena-go, jostaketarakoan, Euskalerrri gu-zian, Zubero'tik asita Bizkai'ko azkeneko azken muturreraiño, Hei-di'ren papera eginen zuten neskato guztiak bizkaieraz mintzatuko zi-ren, eta gipuzkeraz berriz aren mu-tiko lagunarena eginen zutenak. Ez litzake oraindik berandu izengo ori egiten asteke. Baña ez da-egingo: «intensificar las contradicciones ya existentes en la sociedad capitalis-ta vasca y crear aquellas que toda-vía no existen», ots, «eusko-gizarte kapitalistean badiren okasio-bi-deak gaiztoagotu, eta oraindik ez direnak sortu» naiean dabilzenek, ori lortzeko bear-bearrezkoa bait dute «el Batua».

Latiegi'tar Bixente

Albiste laburrak

rra agertzeko asmoz agertu zira-nean, ogeita amarren bat traktore bidean zearkatu ta aurrera joatea galerazi zieten, beayen lur legorak asetzeko, Itoiz eta Nafarroa'ko ubidea, bear-bearrezkoak zituztela eta.

Euskal Irrati Telebista Nafarroa osoan ondo ikusi ta entzun al izateko, Nafarroa'ko Jaurilaritzak eta Eusko Jaurilaritzak izenpetu bear duten itun edo protokoloa, Juan Cruz Alli eta Javier del Castillo'ren autarkiekin onartu zan, UPN'ko beste sailburu denak autarkirik eman gabe geldituz.

Dirudinez, Nafarroa'ko Jaurila-ritza berria, PSOE, CDN, IU ta EA alderdiek osatutakoa izango da; lendakari Otano jauna eta Iruña'ko alkate, Chourraut jauna izango di-rala.

Nafarroa'ko Ikastetxe Nagu-sian, ikasketak bukatuta zituzten 202 karreradunek, beren doktora-dotzako tesisa aurkeztu zituzten, atzo zorrtzi ospatu zan jai-al-dian.

Urtero ospatu oi dan «Felix Ro-dríguez de la Fuente» sarian, aur-tengo gaya, Baso-suketa zan; aur-keztutako lau milla lanetatik, milloi bana peztako sariak, Juan Ignacio Juanbeltz, Barañain'go eta Ruben

Riancho, Cizur Mayor'ko irakas-leentzat izan da; bi irakasle oiek sari ori irugarren aldiz irabazi dute.

Il onen lenengo egunean, Soria-ko Ventosa de San Pedro errian jayo eta Fitero'n bizi dan Crecen-ciana Jimenez Garcia'k eun urte bete zitun. Oso onik dago ta lan asko egindakoa omen da. Zorio-nak.

Txirrinda-saltaka batean zijoala, zubi batetik amar metro berago ze-gon ibai batera erori, arkaitz ba-tean buruarekin jo ta il da gelditu zan, amalau urteko Borja Osés Echeberria. Arroniz'koa.

Beloki ta Salaberria'k, 22 ta 9 menderatu zituzten Titin III ta Errandonea. Eta Bergara erriko ja-yetako txapelketako azken-jokoan, Eugi ta Galartza'k 22 ta 19 irabazi zien Unanue ta Etxarri'ko Lasa'ri; danetan ondoen, Lasa egon zan.

Osasuna'k etxean Lleida'rekin bat eta uts galdu zuan joan dan igandean, lenengo mallara igotze-ko zituan itxaropen apurrak erabat uxatuaz. Datorren urtean bearko...

Indurain gogor dabil Dauphiné Libérée saltakan eta garaille irtete-ko itxaropenarekin, noski.

Berri-emalle

Berri ona

Misterioa ala ekintza?

«Egiaren Espiritua datorkenean» (Jn. 16,12-15)

GIZAKIA ekintza zale da. Eta ekintzari emana bizi denak Jainkoa atzean jartzen du eta etekiña aurrean. Mundua du elburu orrela-ko gizon-emakumeak. Mundua eta ez Jainkoa.

Ekintzetan etorkizuna ikusten duenak aalmenak errealtate biurtu nai izaten ditu. Ori nai duenak bere indarraz fidatzen da. Ez du beste inoren bearrak sentitzen. Egiteak eta etekiñak dute leentasuna. Ausnarketa gero etorriko da.

Kristau bizitzan edota, esperientzian, ekintza eta kontenplazioa, biak batera doaz. Ekintzak eta kontenplazioak gizakia Jainkoaren misterioan murgil-tzen dute.

Ekintzak ezagutza eskatzen du. Eta bein zerbait ezagutu ezker, dominatu eta menperatu egiten da. Eta menperatzen dugunean gure egiten dugu zerbait ori.

Grezia-ko filosofoentzat eta Eliz-gurasoentzat, berriz, ezagutzea arrigarritasuna da. Ezagutzea bes-tearen bizitzan parte artzea da. Bestearekin bat egi-tea.

Irutasunaren misterioan sartzeak gure inguruko mundu kaxkar eta apurtua konpondu daitekela pen-tsatzea da. Orregatik, Jainkoaz mintzatzen geranean edota, Jainkoak munduarentzat itza duela diogu-nean, Irutasunaz mintzo gera.

Jesus-en historia, Aitarean, Semearen eta Espiritu Santuaren historia da.

Puntu onera iristean, eta sakoneko telogia egin aurretik, galdera gordin bati erantzutea bidezkoa iruditzen zait: Zer da Jainkoa neretzat? Eta ez da erantzun erreza duen galdera.

Askok dira Jainkoari buruz irudi okerra dutenak; edota, sinisten ez dutenak. Ugari dira, bestalde, bizitzeko Jainkoaren bearrak ez dutenak. Orrela pen-tsatzen dutenei Jainkoa Irutasuna dela erraten ba-diegi, zer burutazio izango ote lituzteke?

Jakin bearko genuke Irutasuna grazia, maitasuna eta elkartea dela.

Grazia: mesedea, barkamena... Jainkoak ematen diguna, guk merezi gabe ematen digun doaia da. Maitasuna: neuririk ez du Aitarean maitasunak. De-nak onartzea eta guztiak errespetatzea eskatzen du egiazko maitasunak.

Elkartea: Daukaguna eta gerana banatzean ema-ten da egiazko elkartea. Elkartea bizitzea eta egitea ardura izatea da.

Naiz eta gizakiak aurrerapen guztiak eskuratu di-tuela irudit, ziurtasunik gabe bizi denaren antza dauka. Ori egia delako grazia bear du gizon-emaku-meak, maitasunean egin bear du bizitza eta elkartean landu bear ditu gizatasuna eta fedea.

Jainkoa maitasuna da. Eta maitasunak beti bes-tearekiko arremana eskatzen du. Irutasuna ori da: arremana.

Artzalluz'tar Joxemari